

MARKINA-XEMEIN / Liburutegia kalera aterako dute herritarrei hurbiltzeko

NAGORE GOIEASKOETXEA

Urriaren 24an Biblioteken Eguna dela eta, hainbat ekintza antolatu ditu Herri Bibliotekak. Ekintza batzuk Uhagon kulturguneagaz batera antolatu dituzte. Beste batzuk, oster, Eusko Jaurlaritzak martxan jarriko duen Irakurri kanpainaren barruan kokatzen dira.

Lehenengo ekintza egunean izango da. Irakurri kanpainaren barruan, liburutegia kalera aterako da, eta Arkupe aurrean jarriko duten karpa batean egongo da zerbitzuak eskaintzen. Ezagutzen ez gaituztenei gure berri emango diegu, gure lana ezagutu dezaten, azaldu du Igor Idoeta bibliotekako arduradunak. Karpa 09:30etik 13:30era egongo da zabalik. Zapatuan, 4 eta 10 urteko umeei zuzenduta, ipuin kontalari saioa egongo da bibliotekan. 12:00etan hasiko da.

Hurrengo ekimena Biblioteken Egunean bertan izango da, urriaren 24an. Goizean, irakurketa gune berriak zabalduko dituzte herrian, bata Uhagonen eta bestea osasun etxean. Bibliotekatik aparte, gure zerbitzua herriko beste leku batzuetan eskaini nahi dugu, azaldu du bibliotekako arduradunak. Horrela, bibliotekako 50-100 liburu jarriko dituzte gune bakoitzean, eta hilean behin liburuak berritzen joango dira. Gainera, liburuak etxera eroan ahal izango dira, eta bueltan, leku berean edo bibliotekan utzi beharko dira. Ez da egun bakarreko ekimena. Jendearen erantzuna ona bada eta liburuak errespetatzen badira, zerbitzuak martxan jarraituko du, zehaztu du Idoetak. Horretaz gainera, 24an, bibliotekatik maileguak eroaten dituztenei oparia banatuko zaie. 7 eta 10 urtekoei Galtzagorriko irakurketa agenda emango zaie, eta besteentzako ere egongo da oparitxoren bat, argitu dute. Ahoz-kotasuna lantzeko tailerra emango dute

Ekimenen barruan sartu dute baita Irakurleen Txokoa ere. Horrela, kurtso berriko lehenengo saioa urriaren 25ean izango da, eta euskarazko taldeak Katixa Agirreren Sua falta zaigu liburuaz jardungo du, 18:30ean hasita. Hurrengo egunerako ekimena, bestalde, Uhagon Kultur Elkarteagaz batera antolatu dute. Arrakala ikuskizunagaz hasitako bidean, Bihotz bakartien Klubak Katamalo poesia eta musika ikuskizuna ekarriko du Uhagonera, urriaren 26an, 22:30ean.

Urriaren 29an, berriz, Ahoz-aho tailerra hasiko da. Lau astelehenean emango dute: urriaren 29an eta azaroaren 5ean, 12an eta 19an. Tailerra guraso, haur hezitzaile, aisialdi monitore edo gaia gustuko duten denei zuzenduta dago, eta ahoz-kotasuna landuko da, Yolanda Arrieta idazlearen laguntzagaz. Parte hartu nahi dutenek bibliotekara deitu edo hara joan behar dute.

Bestalde, Irakurri Kanpainaren barruko beste ekintza batzuk ere eroango dira aurrera. Alde batetik, 12 eta 16 urte bitartekoentzat, Liburua ageri duen erretratua izeneko argazki lehiaketa. Oinarriak bibliotekan banatzen dira, eta hantxe utzi behar da baita argazkien CDa ere. Horretaz gainera, etxean irakurtzeko gogoia pizteko, Familiak ere kontaktatu du gida eskuratu ahal izango da.